# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

## 330

*EBAZPENA, 2019ko abenduaren 18koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduak egin zuen deialdia. Agindu hartan, dirulaguntza batzuetarako deialdia egin zen, garapen jasangarriko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate eta beste toki-entitate eta tokiko erakunde autonomo, toki-garapenerako agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateetarako; era berean, deialdiaren oinarri arautzaileak ere ezarri ziren.*

Egitateak: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez, 2019. urterako dirulaguntza batzuetarako deialdia egin zen, garapen jasangarriko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate, beste toki-entitate eta tokiko erakunde autonomo, toki-garapenerako agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateetarako. Aipatutako agindu hori 2019ko uztailaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (127. zenbakia) argitaratu zen.

Egitateak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30.5 artikuluan ezarritakoari jarraituz, aginduaren 9. artikuluan eskabideak aurkezteko emandako epea egun baliogabe batean amaitzen zenez, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatu zen.

Egitateak: Eskabideak aurkezteko epea 2019ko irailaren 16an amaitu zen, eta guztira 153 eskari iritsi ziren Ingurumen Sailburuordetzako egoitza elektronikora.

Kontuan hartu beharrekoak: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduaren 11. artikuluan ezarrita dagoen bezala –han daude arauturik dirulaguntzak–, ekarri beharreko agiriak ekartzeko esan zaie 10. artikuluan zehazturik dauden dokumentu guztiak aurkeztu ez dituztenei edo 2.2 artikuluko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ez dutenei edo aginduan eskatzen zen beste edozer falta zutenei. Dokumentazio-errekerimenduei erantzuteko epea amaitu da, eta eskabide guztiak behar bezala osatu dira.

Kontuan hartu beharrekoak: Organo ebaluatzaileak, 2019ko ekainaren 25eko Aginduaren 14. artikuluaren arabera betiere, aztertu eta balioetsi ditu dirulaguntza eskariak eta egin du zegokion ebazpen-proposamena (berariaz horretarako osatu zen). Ebazpen horretan dago zehazturik, esleipen-irizpideak betez eta aurrekontu-mugak gainditu gabe, aginduaren arabera zer proiektu diren dirulaguntza jasotzeko modukoak eta dirulaguntzen zenbatekoa, eta zer proiektu ezetsi diren eta zergatik.

Kontuan hartu beharrekoak: 2019ko ekainaren 25eko Aginduko 3.2 artikuluan jartzen du ezen, nahikoa eskari aurkeztu ez dela-eta edo aurkeztuek baldintzak betetzen ez dituztela-eta jarduera-lerroren baterako gordetako diru guztia ez bada agortzen, beste jarduera-lerro baterako jasota dagoen kopurura batu ahal izango dela, betiere organo ebaluatzaileak horretarako egiten duen proposamenarekin bat.

Kontuan hartu beharrekoak: Ekonomia zirkularreko lerroan, ez da agortu hasieran aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura, eta, ondorioz, organo ebaluatzaileak erabaki du gerakin hori erabiltzea beste lerroen aurrekontu-zuzkidura handitzeko.

Kontuan hartu beharrekoak: xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, diru-kopuruak handitu egin daitezke, deialdia ebatzi aurretik, baldin eta aurrekontu erabilgarri nahikoa badago.

Kontuan hartu beharrekoak: Ingurumeneko sailburuordearen 2019ko azaroaren 27ko Ebazpenaren bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduko aurrekontu-zuzkidura handitu egiten da. Agindu hartan, dirulaguntza batzuetarako deia egin zen, garapen jasangarriko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate eta beste toki-entitate eta tokiko erakunde autonomo, toki-garapenerako agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateetarako. Era berean, deialdiaren oinarri arautzaileak ere ezarri ziren.

Kontuan hartu beharrekoak: Aurrekontu-zuzkidura doitu ostean, aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago 50 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektu guztien zenbatekoa diruz laguntzeko.

Kontuan hartu beharrekoak: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduko 11. artikuluan ezarrita dagoen bezala –han daude arauturik dirulaguntzak–, ekarri beharreko agiriak ekartzeko esan zaie 10. artikuluan zehazturik dauden dokumentu guztiak aurkeztu ez dituztenei edo 2.2 artikuluko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ez dutenei edo aginduan eskatzen zen beste edozer falta zutenei. Dokumentazio-errekerimenduei erantzuteko epea amaitu da, eta eskabide guztiak behar bezala osatu dira.

Kontuan hartu beharrekoak: Ingurumeneko sailburuordeak du eskumena behin betiko erabakitzeko nori eman dirulaguntza eta zenbat, betiere 2019ko ekainaren 25eko Aginduko 17. artikuluan xedaturik dagoen moduan.

Kontuan hartu beharrekoak: Deialdia egiten duen Aginduaren 16. artikuluaren arabera, bertan arautūtako laguntzak, jasangarritasunerako hezkuntzaren lerrokoak salbu, lehia-prozeduraren bidez esleituko dira, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan.

Honako arau hauek aztertu dira: 2019ko ekainaren 25eko Agindua, Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez 2019ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiten baita garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udalentzat, mankomunitateentzat, beste toki-erakunde batzuentzat, toki-erakunde autonomoentzat, tokiko garapen-agentzientzat eta tokiko merkataritza-sozietateentzat; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 24/2019 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har aplikatu beharreko gainerako arauak. Horiek guztiak azterturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eranskinean zehazturik dauden entitateei dirulaguntza ematea. Hor bertan dago zehazturik zer proiektutarako eta zenbat.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduko 23. artikuluan xedaturik dagoen bezala ordainduko dira dirulaguntzak.

Bigarrena.– Ebazpen honetako II. eranskinean zehaztu ditugun entitateei ez ematea dirulaguntzarik, betiere Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduan erabakitakoaren arabera. Arrazoiak ere eranskin horretan datoz.

Hirugarrena.– Agintzea ordain dakiela, I. eranskinean zehazturik dauden entitateei, ebazpen honen bidez emandako dirulaguntzen lehen zatia.

Hurrengo dirulaguntza-zatiak ordaintzekotan, aurretiaz, badira agiri batzuk onuradunek aurkeztu beharrekoak. Hala dakar Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduaren 22. eta 23. artikuluetan.

Agindu horretako 19. artikuluan datozen betebeharrak ere bete beharko dituzte onuradunek.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, interesdunei jakitera ematearren –hala egin behar baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduaren 17.1 artikuluaren arabera–, eta publikotasun-printzipioa betetzearren, hala behar baita egin dirulaguntzak emateko prozedura orotan.

Bosgarrena.– Baldintza-orriak banan-banan denei jakinaraz dakiela agintzea, diruz lagundutako proiektuak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 25eko Aginduaren 18. artikuluaren arabera gauza daitezen.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 18a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.

# I. ERANSKINA

## EMANDAKO LAGUNTZAK

### LURZORU KUTSATUEN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 001-SUE-2019 | Amurrioko Udala | «Amurrioko Larrabe auzoan antzinako zabortegia zigilatzeko eta ixteko birgaldaketa-proiektuaren» V. fasea egikaritzea | 50 | 160.314,05 |
| 002-SUE-2019 | Asparrenako Udala | Ajuria eta Urigoitiaren fabrikaren industria-aurriko ingurunean hondakin arriskutsuak kentzea. II. fasea. Fibrozementu-plakak kentzea. | 82 | 83.695,00 |
| 003-SUE-2019 | Legazpiko Udala | Lurzoru kutsatuak 20051-00055 kokalekua-2019 ur kontrola eta instalakuntza | 66 | 10.116,55 |
| 004-SUE-2019 | Sopelako Udala | Ikerketa-lan osagarriak eta indusketa Sopelako 48.085-00001 kokalekuan | 72 | 42.818,44 |
| 005-SUE-2019 | Valle de Trápaga-Trapagarango Udala | Isurketa-masa delimitatzea eta Trapagarango Larrañeta lursailean (Bizkaia) egindako ikerketa esploratzaileak | 50 | 9.773,21 |
| 006-SUE-2019 | Oñatiko Udala | Urrutxuko zabortegiko zigilatze osteko 2020ko ingurumen jarraipena | 62 | 15.000,00 |
| 007-SUE-2019 | Hernaniko Udala | Hernaniko Ave Maria parkearen ondoan dagoen lizar-basotxoko lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa zehatza zabaltzea | 58 | 11.620,40 |
| 009-SUE-2019 | Arrasateko Udala | MCM eraikineko Udal jabetza den lurzoruaren ikerlana | 56 | 23.109,51 |
| 010-SUE-2019 | Errenteriako Udala | Pontika auzoan (Errenteria) Barandiarango parkeari buruzko ikerketa eta haren indusketarako eta ingurumen-kontrolerako plana (Gecotor) zabaltzea | 66 | 51.650,10 |
| 011-SUE-2019 | Getxoko Udala | Getxoko ingurumen-multzoa desgasifikatzeko proiektua idaztea; 2. fasea, aldagelen gunea | 52 | 3.525,00 |
| 012-SUE-2019 | Erandioko Udala | 2. jarduketa-eremuko urbanizazio-proiektu aldatuaren 1. fasearen separatak ukitutako azaleran eta aldameneko kaleetan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak induskatzeko laguntza teknikoa eta lurpeko urak kontrolatzeko esku-hartzeak. | 54 | 17.234,90 |
| 013-SUE-2019 | Iruña Okako Udala | Lurzoruaren kalitatea miatzeko ikerketa, industria-aurriari buruzko azterketa eta zurrategiaren antzinako instalazioen saneamendua | 67 | 53.932,97 |
| 014-SUE-2019 | Barakaldoko Udala | Gorostizako (Tellaetxe-Barakaldo) antzinako zabortegiko zona berreskuratu eta zigilatuaren ingurumen-kontrola eta jarraipena | 75 | 8.952,98 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 015-SUE-2019 | Haranako Udala | Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa kontrolatu gabeko 4 hondakin-biltegitan eta berreskurapen-neurrien proposamena Haranean | 50 | 32.501,40 |
| 016-SUE-2019 | Eako Udala | Lurzoruaren kalitatea miatzeko ikerketa eta indusketa-planaren idazketa Bidebarria kalean dagoen paper-fabrikaren kokapenean | 52 | 18.415,75 |
| 017-SUE-2019 | Karrantza Haranako Udala | Ingurumenaren kontrola eta jarraipena Dolomitas del Norten | 57 | 2.867,39 |
| 018-SUE-2019 | Mungiako Udala | Hondakinak isurtzeko jarduera egin zen kokapeneko lurzoruaren kalitate-adierazpena, Lemoizko udal-mugarteko 4. poligonoko 19. lurzatian, eta Ingurumen Administrazioko Zuzendaritzak 2018ko martxoaren 12ko ebazpenean eskatutako gainerako jarduketak | 66 | 60.000,00 |

KLIMA-ALDAKETAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 001-KLI-2019 | Ibarrangeluko Udala | BI-3234 errepidean oinezkoen zirkulazioaren irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea, Ibarrangeluko UMan | 67 | 28.373,46 |
| 002-KLI-2019 | Legazpiko Udala | Estalki bizia eta drainatze jasangarriko hiri-sistema (DJHS) eraikitzea, euri-ura iragazteko, Legazpiko Laubide auzoko haurrentzako parkean | 84 | 67.876,00 |
| 003-KLI-2019 | Laudioko Udala | Ibilgailu elektrikoa erosteko dirulaguntza | 59 | 4.000,00 |
| 004-KLI-2019 | Aguraingo Udala | Udal-ibilgailu elektrikoa erostea | 65 | 4.000,00 |
| 005-KLI-2019 | Gorlizko Udala | Bizikleta-zidorra Ondargane kalean | 52 | 80.000,00 |
| 006-KLI-2019 | Villabonako Udala | Udal brigadaren lanak egiteko auto elektrikoaren erosketa | 54 | 4.000,00 |
| 007-KLI-2019 | Gordexolako Udala | Obra-brigadaren ibilgailuaren eskurapena eta birkarga-gunea | 58 | 4.000,00 |
| 008-KLI-2019 | Alegría-Dulantziko Udala | Kirol-guneko aldirietako aparkalekua | 69 | 80.000,00 |
| 009-KLI-2019 | Arratzuko Udala | Loioa eta Uarka arteko bidegorri-proiektua Arratzun | 64 | 80.000,00 |
| 010-KLI-2019 | Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI - CEA) | Mendebaldea proiektua, III. fasea. Ariz | 90 | 80.000,00 |
| 012-KLI-2019 | Bilboko Udala | Alde Zaharreko oinezkoentzako gunean edukiontziak biltzeko ibilgailu elektrikoa eskuratzeko dirulaguntza eskaera | 70 | 4.000,00 |
| 013-KLI-2019 | Balmasedako Udala | Lorategi berdea eta urdina Hedegile kaleko 42. zenbakian, KArako egokitzapena, AHan bero-irlaren efektua murriztuz | 70 | 61.800,34 |
| 014-KLI-2019 | Ermuako Udala | Valdespina Markesaren kalea eta Goitondo industrialdea konektatzeko bidegorri bat eraikitzeko proiektua idaztea eta obra egitea | 62 | 47.787,65 |
| 015-KLI-2019 | Busturiako Udala | Busturiako Udalaren automobil-parkea berritzea | 51 | 4.000,00 |
| 018-KLI-2019 | Andoaingo Udala | Klima-aldaketara egokitzeko Andoaingo plana | 77 | 15.000,00 |
| 019-KLI-2019 | Oñatiko Udala | Santxolopeztegi industrialdera oinezkoentzako zein bizikletentzako ibilbide segurua egokitzeko lanak | 70 | 47.586,62 |
| 021-KLI-2019 | Gamiz-Fikako Udala | Gamiz-Fikako bidegorria batzeko proiektua | 73 | 80.000,00 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 023-KLI-2019 | Munitibarko Udala | Gerrikaitzeko aparkalekuari aldiriko erabilera emateko oinezkoentzako ibilbidean hobekuntzak | 61 | 69.513,09 |
| 024-KLI-2019 | Erandioko Udala | Klima-aldaketara egokitzeko Erandioko udalerrirako plana idaztea | 70 | 13.000,00 |
| 025-KLI-2019 | Bakioko Udala | Bakio: Paisaia Urdina. Ur-kudeaketa jasangarrirako dirulaguntza eskaera | 75 | 80.000,00 |
| 026-KLI-2019 | Getxoko Udala | Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko Getxoko udalerrirako plana | 86 | 14.463,00 |
| 027-KLI-2019 | Altzoko Udala | Altzoko bidegorri sarea zabaltzeko proiektua, Altzo azpitik Alegira | 54 | 80.000,00 |
| 028-KLI-2019 | Ezkio-Itsasoko Udala | Ezkioko Sata Lutzi-Anduaga bidegorriaren trazadua | 53 | 63.981,54 |
| 029-KLI-2019 | Zamudioko Udala | Klima-aldaketara egokitzeko Zamudioko plana. | 75 | 11.936,00 |
| 030-KLI-2019 | Arrigorriagako Udala | Ollargango tren-geltokirako aldirietako aparkalekua, Santa Isabel kalean (Arrigorriaga) | 72 | 80.000,00 |
| 031-KLI-2019 | Debako Udala | Klima-aldaketara egokitzeko Debako plana | 76 | 12.000,00 |
| 032-KLI-2019 | Amurrioko Udala | 85 plazako aldirietako aparkalekua Amurrion | 80 | 80.000,00 |
| 033-KLI-2019 | Usurbilgo Udala | Pikaola-Murkaiku bideko bidegorriaren urbanizazio proiektua - 1. fasea | 56 | 80.000,00 |
| 034-KLI-2019 | Arrasateko Udala | Araba etorbideko bidegorria eraikitzea | 71 | 61.415,00 |

NATURA-ONDAREAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 003-NAT-2019 | Getariako Udala | Getariako San Anton mendian sartu berri duten sugandila italiarraren populazioaren erauzketa 2019-2021 urte artean | 50 | 5.576,07 |
| 004-NAT-2019 | Hondarribiako Udala | Bertako basoaren berreskuratzea eta Cladium Mariscus hezegunearen kontrola Jaizkibelen eta apo lasterkariaren kontserbazioa Jaizubian (2020-2021) | 68 | 10.930,37 |
| 005-NAT-2019 | Itsasondoko Udala | Murumendin, natura intereseko eremua eta korridoreko basoen egoera ekologikoa hobetzeko ekimenak | 77 | 24.842,50 |
| 006-NAT-2019 | Ataungo Udala | Ataungo herri-mendietako habitatak berreskuratzeko lanak Aralarko kontserbazio bereziko eremuan (KBE) | 55 | 30.846,50 |
| 008-NAT-2019 | Entziako Partzuergoa | Lehentasunezko intereseko 6230* habitata (belardi menditar azidofiloak) berreskuratzeko jarduketak ES2110022 Entzia KBEan | 51 | 37.925,90 |
| 010-NAT-2019 | Asparrenako Udala | Ametzaga ibaiaren erriberako eta ibilguko hondakinak garbitzea, Asparreneko industrialdetik pasatzen den eremuan | 78 | 6.175,00 |
| 013-NAT-2019 | Kanpezuko Udala | Kanpezuko udal-mugartean erriberetako eta ibilguetako hondakinak garbitzeko jarduketak | 50 | 10.000,00 |
| 014-NAT-2019 | Zeraingo Udala | Erabilera publikoko mendietan hainbat intereseko habitaten hobekuntza lanak Aizkorri-Aratz partek natural, KBE (ES2120002) eta EAE-ko korridore ekologiko sarearen barnean | 66 | 35.131,00 |
| 015-NAT-2019 | Kripango Udala | Kripango udalerriko iparraldean biodibertsitatea kontserbatzea, Arabako Hegoaldeko Mendilerroak KBEan jarduketak abian jarriz | 64 | 4.422,96 |
| 016-NAT-2019 | Zaldibiako Udala | Aralarko kontserbazio bereziko eremuan Zaldibiako udalerrian dauden baso habitaten lehengoratze lanak | 68 | 31.682,50 |
| 017-NAT-2019 | Alkizako Udala | Batasunaren intereseko habitat naturalak hobetzea eta fauna mehatxatuko espezieak kontserbatzea Hernio-Gazume KBEan. | 59 | 59.280,00 |
| 018-NAT-2019 | Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoa | Gipuzkoa eta Arabako Partzoneria orokorrean dauden zenbait intereseko habitaten hobekuntza lanak Aizkorri-Aratz Parke Natural eta kontserbazio bereziko | 71 | 41.961,50 |
| 019-NAT-2019 | Hernaniko Udala | «Aiako Harria eta Urumea KB-en arteko haranetan bioaniztasunaren kontserbaziorako ekintzak: landare exotiko inbaditzaileen kontrola eta mikrohezegune sarea egonkortzeko lanak. V. fasea (2020-2021)» | 53 | 13.914,11 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 020-NAT-2019 | Muxikako Udala | Baso-leheneratzea Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Urzelairen buruan, I. fasea | 73 | 38.700,63 |
| 021-NAT-2019 | Aramaioko Udala | Aramaioko hariztien berreskuratze plana: 2019 eta 2020 urteko lanak | 50 | 7.714,00 |
| 022-NAT-2019 | Bermeoko Udala | Tonpoi ingurua berreskuratzeko ekintza plana | 50 | 75.000,00 |
| 024-NAT-2019 | Gaubeako Udala | Habitat naturalak eta konektagarritasun ekologikoa hobetzeko ekintzak Valdegovía/Gaubeako paisaiaren ekintza-planaren eremuan | 67 | 51.033,53 |
| 025-NAT-2019 | Ezkio-Itsasoko Udala | Itsasoko natura ondarearen berreskurapena | 56 | 59.375,00 |
| 026-NAT-2019 | Laguardiako Udala | Udalerriko iparraldean biodibertsitatea kontserbatzea, Arabako Hegoaldeko Mendilerroak KBEan jarduketak abian jarriz | 68 | 6.296,18 |
| 027-NAT-2019 | Bastidako Udala | «Arabako Hegoaldeko Mendilerroak» KBEan biodibertsitatea kontserbatzea, Bastidako udal-mugartean | 64 | 2.660,39 |
| 028-NAT-2019 | Eltziegoko Udala | Eltziegoko udalerriko hegoaldean biodibertsitatea kontserbatzea, Ebro Ibaia KBEan jarduketak abian jarriz | 51 | 14.240,93 |
| 030-NAT-2019 | Arrasateko Udala | Antoniña hezegunea leheneratzeko proiektua exekutatzea | 50 | 14.548,07 |
| 031-NAT-2019 | Mutrikuko Udala | GIL 23: Zazpi hondartzetako Flysh Beltzeko (Kardal-Saturraran) amonite erraldoien bilduma babesteko proiektua | 90 | 39.521,32 |
| 032-NAT-2019 | Zallako Udala | Jarduketa integrala (garbiketa, flora inbaditzailearen deuseztapena eta sentsibilizazioa) Zallako udalerriko erreketan eta ibaian | 57 | 10.000,00 |
| 033-NAT-2019 | Amezketako Udala | Aralarko geologia interesdun lekuak balioan jarri eta geokontserbazioa sustatzeko proiektua | 77 | 11.723,00 |
| 034-NAT-2019 | Eako Udala | Agiñerreka-Urtubiagako urtegiaren ingurunearen ingurumen-leheneratzea | 57 | 30.445,60 |
| 035-NAT-2019 | Vitoria-Gasteizko Udala | Vitoria-Gasteizko udal-mugartean galdutako flora mehatxatua berriro sartzea | 71 | 18.675,62 |
| 036-NAT-2019 | Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, S.L. | Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko erriberetako eta ibilguetako hondakinak garbitzeko jarduketak | 50 | 7.500,00 |
| 038-NAT-2019 | Zumaiako Udala | Urolako itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremuaren (ES2120004) padurak kontserbatzeko eta lehengoratzeko jarduketak | 50 | 11.259,00 |

EKONOMIA ZIRKULARRAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 001-EKZ-2019 | Txorierriko Mankomunitatea | 19 edukiontzi eta 102 sarraila elektroniko hornitzea | 87 | 25.000,00 |
| 003-EKZ-2019 | Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa | Organikoa 5. Edukiontzi bidez eta gainerako hondakinak ere sailkatuta biltzeko sistema berria | 78,5 | 25.000,00 |
| 004-EKZ-2019 | Arabako Lautadako Kuadrilla | III. fasea: biohondakinak pilakako bilketa selektiboaren bidez biltzeko sistema ezartzea kuadrillako ekoizle handientzat | 75 | 25.000,00 |
| 005-EKZ-2019 | Kanpezuko Udala | Kanpezuko udalerriko ostalaritzan eta tokiko saltokietan poltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea | 59 | 4.627,89 |
| 006-EKZ-2019 | Haranako Udala | Haraneko udalerriko merkataritza- eta ostalaritza-lokaletan poltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea | 59 | 1.529,98 |
| 007-EKZ-2019 | Lagrango Udala | Lagrango udalerriko merkataritza- eta ostalaritza-lokaletan poltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea | 59 | 1.337,98 |
| 008-EKZ-2019 | Urola Erdiko Mankomunitatea | Urola Erdiko Mankomunitateko titulartasuneko komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueretako konpostaren organismo patogenoak kontrolatzea, Komun | 69 | 3.000,00 |
| 009-EKZ-2019 | Debegesa | Ekintzaileentzako ekonomia zirkularra | 68,5 | 1.900,00 |
| 010-EKZ-2019 | Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, S.L. | Bildu beharreko biohondakin-kantitateen gehikuntzaren erronka handia. Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko 9 udalerritan ekonomia zirkularrari lotutako garapen jasangarria sustatzen duen ekintza | 82,5 | 24.684,00 |
| 011-EKZ-2019 | Zizurkilgo Udala | Hondakinen programaren jarraipena | 73 | 23.750,00 |
| 012-EKZ-2019 | Vitoria-Gasteizko Udala | Vitoria-Gasteizko Udaleko ekonomia zirkularrari buruzko proiektua | 65,5 | 23.100,00 |
| 013-EKZ-2019 | Urduñako Udala | Urduña. Balio-katean elikagai-xahupena murriztea. Ekoizpenetik kontsumo kolektiboraino, udalerriko sukaldaritza barne. | 86 | 25.000,00 |
| 014-EKZ-2019 | Soraluze-Placencia de las Armasko Udala | Ostalaritza, merkataritza eta udaleko plastikoen kontsumoa murrizteko kanpaina. | 79,5 | 11.557,30 |
| 015-EKZ-2019 | Amurrioko Udala | Amurrion konponketa- eta autokonponketa-negozioak ezartzea | 67 | 25.000,00 |
| 016-EKZ-2019 | Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzeko Udala | Ekoizle handientzako edukiontziak jartzea eta egokitzea | 50 | 25.000,00 |

JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|
| 001-EDU-2019 | Uribe Kostako Mankomunitatea | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 4.115,00 |
| 002-EDU-2019 | Zuiako Udala | Eskolako Agenda 21 programa. 2019-2020 ikasturtea | 675,00 |
| 005-EDU-2019 | Legutioko Udala | Jasangarritasunerako hezteko laguntza | 250,00 |
| 006-EDU-2019 | Urola Kostako Udal Elkartea | 2019-2020 ikasturtean Zarautz, Zestoa eta Zumaiako ikastetxeetan eskolako agenda 21a garatzeko programa | 7.250,00 |
| 007-EDU-2019 | Gordexolako Udala | Gordexolako EA21 eta TA21 programen arteko koordinazioa | 600,00 |
| 008-EDU-2019 | Portugaleteko Udala | Jasangarritasunerako hezkuntza - Toki-erakundeentzako laguntzak | 8.250,00 |
| 009-EDU-2019 | Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udala | Ikastetxeen koordinazioa Eskolako Agenda 21 ezartzeko | 1.852,00 |
| 010-EDU-2019 | Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegia | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa: Vitoria-Gasteizko Eskolako Agenda 21 - 2019-2020 ikasturtea: Klima-aldaketa | 11.690,00 |
| 011-EDU-2019 | Bergarako Udala | Eskola Agenda 21 2019-2020: nekazal turismoa | 4.373,40 |
| 012-EDU-2019 | Azpeitiako Udala | Ekoizpen eta kontsumo jasangarria: Energia | 7.000,00 |
| 013-EDU-2019 | Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, S.L. | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa Arrigorriagan, Etxebarrin, Galdakaon eta Ugao-Miraballesen. 2019-2020 ikasturtea | 7.875,00 |
| 014-EDU-2019 | Amurrioko Udala | Eskolako Agenda 21 Amurrion, 2019-2020. Natura-inguruneko ondarea. | 4.600,00 |
| 016-EDU-2019 | Laudioko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 6.863,50 |
| 017-EDU-2019 | Erandioko Udala | Eskola Agenda 21 Erandio | 8.425,50 |
| 018-EDU-2019 | Irungo Udala | Eskola Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21aren arteko koordinazioa. 2019-2020 ikasturtea | 8.612,50 |
| 019-EDU-2019 | Donostiako Udala | Eskola Agenda 21, 2019-2020 | 16.000,00 |
| 020-EDU-2019 | Tolosako Udala | EA21 2019-2020 Janaria eta ekonomia zirkularra | 16.000,00 |
| 021-EDU-2019 | Oiartzungo Udala | 2019-2020 Ikasturtean Oiartzungo Eskola Agenda 21 dinamizatzeko aholkularitza zerbitzua | 5.100,00 |
| 023-EDU-2019 | Sopuertako Udala | Sopuerta, Eskolako Agenda 21, 2019-2020 | 750,00 |
| 024-EDU-2019 | Hondarribiako Udala | 2019-2020 Ikasturtean Hondarribiko eskoletan Eskola Agenda 21 Programa eta dinamizatzea | 12.500,00 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|
| 025-EDU-2019 | Lezoko Udala | Lezoko Eskola Agenda 21 programa dinamizatzea | 5.150,00 |
| 026-EDU-2019 | Basauriko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 10.375,00 |
| 027-EDU-2019 | Valle de Trápaga-Trapagarango Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 3.226,50 |
| 028-EDU-2019 | Ordiziako Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2019-2020 ikasturtea | 2.900,00 |
| 029-EDU-2019 | Errenteriako Udala | Eskolako Agenda 21 | 12.500,00 |
| 030-EDU-2019 | Mungiako Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 15.000,00 |
| 031-EDU-2019 | Itsasondoko Udala | Eskola Agenda 2019-2020 | 666,00 |
| 032-EDU-2019 | Urnietako Udala | Urnietako Eskolako Agenda 21 prozesua dinamizatzeko laguntza teknikoa. | 3.907,50 |
| 033-EDU-2019 | Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa | Eskola Agenda 2019-2020 | 3.313,64 |
| 034-EDU-2019 | Oñatiko Udala | Oñatiko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 programa dinamizatzeko zerbitzua. | 4.107,10 |
| 035-EDU-2019 | Amorebieta-Etxanoko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 16.000,00 |
| 036-EDU-2019 | Arratiako Udalen Mankomunitatea | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 6.893,18 |
| 037-EDU-2019 | Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla | Arabako Errioxako Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 4.295,50 |
| 038-EDU-2019 | Lazkaoko Udala | Eskola Agenda 21 2019-2020 ikasturtea | 2.365,00 |
| 039-EDU-2019 | Tolosaldea Garatzen, S.A. | Tolosaldeko Eskola Agenda 21 2019-2020 | 12.548,00 |
| 040-EDU-2019 | Beasaingo Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2019-2020 ikasturtea | 3.250,00 |
| 041-EDU-2019 | Debegesa | Debabarreneko Eskola Agenda 2019-2020 | 12.606,74 |
| 042-EDU-2019 | Azkoitiako Udala | Ekoizpena eta kontsumo jasangarria | 9.000,00 |
| 043-EDU-2019 | Hernaniko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2019-2020 ikasturtea | 6.250,00 |
| 044-EDU-2019 | Aiarako kuadrilla | Ingurumen Hezkuntzako Eskualde-Ekintzak, Agenda 21 (2019-2020) | 3.277,66 |
| 045-EDU-2019 | Balmasedako Udala | Eskolako A21, 2019-2020 ikasturtea | 3.534,50 |
| 046-EDU-2019 | Aiarako Udala | Ingurumen Hezkuntza Ekintzak: Eskola Agenda 21 | 1.177,69 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|
| 047-EDU-2019 | Bilboko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa, 2019-2020 ikasturtea | 16.000,00 |
| 048-EDU-2019 | Andoaingo Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa - 2019-2020 ikasturtea | 11.250,00 |
| 049-EDU-2019 | Barakaldoko Udala | 2019. Jasangarritasunerako hezkuntza - Toki-erakundeentzako laguntzak garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiteko | 7.105,50 |
| 050-EDU-2019 | UGGASA, Urola Garaiko Garapenerako Agentzia, S.A. | Eskola Agenda 21 Legazpia, Urretxu eta Zumarraga | 7.378,35 |
| 051-EDU-2019 | Aretxabaletako Udala | Jasangarritasuna hezkuntzan | 3.405,90 |
| 052-EDU-2019 | Leioako Udala | Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 programen arteko koordinazio-jarduketak, 2019-2020 ikasturtea | 16.000,00 |
| 053-EDU-2019 | Idiazabalgo Udala | Idiazabalgo Eskolako Agenda 21 hezkuntza programa. | 504,00 |
| 054-EDU-2019 | Getxoko Udala | Tokiko Agenda XXI eta Eskolako Agenda 21 programen arteko koordinazioa. 2019-2020 ikasturtea | 16.000,00 |
| 055-EDU-2019 | Ortuellako Udala | 2019-2020 ikasturtea, Eskolako Agenda 21 | 6.696,75 |
| 057-EDU-2019 | Zumaiako Udala | Zumaiako Agenda 2030 eta Eskola Agenda 21 uztartzen dituen sentsibilizazio kanpainaren edukien diseinua | 4.713,50 |

# II. ERANSKINA

## UKATUTAKO LAGUNTZAK

### KLIMA-ALDAKETAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 011-KLI-2019 | Kanpezuko Udala | Mugikortasun jasangarriaren sustapena: birkarga-gune elektrikoa instalatzea eta erabilera sustatzea | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua – Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 016-KLI-2019 | Muxikako Udala | Bidegorriaren argiteria: mugikortasun jasangarrirako konexioa Kurtzero eta Ugarte artean | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua – Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 020-KLI-2019 | Arraia-Maeztuko Udala | Arraia-Maeztu udalerrian mugikortasun jasangarria sustatzea, ibilgailu elektrikoetarako 3 birkarga-gune instalatuz | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua – Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 022-KLI-2019 | Igorreko Udala | Oinezbide Orobi argiteria publikoa | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua – Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |

NATURA-ONDAREAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 001-NAT-2019 | Orendaingo Udala | Sorabil eremua berreskuratzea | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Aginduaren 16.1 artikulua). |
| 007-NAT-2019 | Entziako Partzuergoa | ES2110022 KBEan tornadoak hondatutako pagadia berritzeko jarduketak; aberasteko banakako landaketak altxonbide-eremuan | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Aginduaren 16.1 artikulua). |
| 009-NAT-2019 | Iturrietako Partzuergoa | Lehentasunezko intereseko 6230* habitateko (belardi menditar azidofiloak) arlo berreskuratuak finkatzeko jarduketak ES2110022 KBEan (IV. fasea) | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Aginduaren 16.1 artikulua). |
| 012-NAT-2019 | Asteasuko Udala | Asteasuerrekan Ibaiertzeko haltzadia leheneratzeko lanak (2020 2021) | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Aginduaren 16.1 artikulua). |
| 023-NAT-2019 | Busturiako Udala | Aingerubideko hariztiaren egokitzapena | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Aginduaren 16.1 artikulua). |
| 029-NAT-2019 | Ordiziako Udala | Ordiziako biodibertsitatearen kontserbaziorako ekintzak 2020-2021 | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Aginduaren 16.1 artikulua). |
| 037-NAT-2019 | Iruña Okako Udala | Zidorra-Bidegorriaren azpiegitura egokitzea | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (Aginduaren 16.1 artikulua). |